

## AGINDU GENUEN ERANTZUNA

Geure 11-gn. Branka-n puntu bat argitzea agindu genuen : 1936-ko « Euzkadi Jaurlaritza » zabaltze arren arain dela hilabete batzuk (1970/V) Alderdiak egin zuen eskeintza : « Azkenengo urtietan Errian indar barriak sortu dirala ezagutuaz, EUZKO ALDERDI JELTZALEAK, demokrata dan lez, sarbide zabalez eskatzen dogu EUZKADIKO JAURLARITZAN sar ditezela ».

Erantzutea agindu genuen ; eta azken asteotako burrukaldea amaitu ondoren, hona hemen gure iritziak argi eta garbi.

« Jaurlaritza » 1936-an sortu zen ; hau da, orain dela ia 35 urte. Kondaira apur bat egin gabe, beraz, erantzuterik ez dago. Eta, beharrezkoan, « Jaurlaritza »-ri dagozkion puntu nagusi batzuk gogoraziko ditugu.

Argitzapen pare bat aldez aurretik.

1936-an sortutako politika-bideari gaur arte fermuki ekin dioten gizonekiko geure errespetua agertu nahi dugu aurretik. Xuxen ala makur Euzkadi-ren helburutan bizia osoki eskaini duten gizon horientzako, gorazarrea eta itzala eskatzen ditugu. Bi gudu garratzetan, eta ondoren ere, ekin egin diote Gernikan behin agindutakoari ; eta herriaren borondate eta erabaki hura bete nahiz erre dira, arazo pertsonalez arras ahazturik. Ezin deakegu jokabide bikain hori goratu baizik egin ; eta abertzale diren guziek egiten dutela iduritzen zaigu.

Are gehiago : eztabaidea sakonetan barrena abiatu beharrik gabe, 1936-an eta 1945-an Agirre-ren gizonek hautatu zuten jokabidea ORDURAKO ontzat hartzen ez genuke gehienok lan haundirik izango. Bai 1936-an eta bai 1945-an « Euzko Jaurlaritza »-ri egozkion politika-bideak ba zuten funtsik ; eta itxaropen-iturri izan zitezkean.

Geroztik ordea 35 urte pasa dira. 1896-tik 1931 arte,, eta 1936-tik 1971-arte, denbora-tarte berbera dago. Zer zen ordea 1896-ko urtea 1931-ko gizonentzako ? Gonbarazio honek agian gaurko egoera konpreni-arazten lagun dezake.

Guretzako, eta belaun\* berrieikiko bereziki, 1936-ko gertaerak urrun daude, oso urrun. Egia samina zaio hau askori, ba dakigu, eta ulertzen dugu. Baino barne-ausardia eskatu behar zaigu abertzale guzioi. Eta 1936-ko gizonei guk, bihotzez maite duten herri horren izenean, egia den beza-

la eta beharrak agertzen diren bezalakoak ikusteko barne-ausardia eskatzen diegu.

#### « Euzko Jaurlaritza\* »-ren legetasunaz

« Jaurlaritza »-ren urteak betirako joanak direla esaten dutenei, hauxe erantzun ohi zaie : « Jaurlaritza » LEGETASUNA DA.

Egia ote da hau ?

Alde batetik, 1936-an 21 urte zituztenek, gaur 56 urte dituzte ; eta gaur 42 urte baino gutxiago dutenek, ez zuten adimendu-adina ere eginik Franco-ren gudua hastean. « Jaurlaritza »-ri dagokion legetasuna ontzat eman zuten haietatik gehienak hil egin dira geroztik, %-ko 90 beharbada. Hautaketa edo politika-bide hori, beraz, ez da GAURKO herriarena, ATZO-KO borondatea baizik ; ez da euskaldun bizien ekarria, hauen aiten edo aitonena baizik. Gaurko herriak, %-ko 90 edo 95-eten, ez du parerik hartu 1936-ko erabaki urrun horietan. Ezagutu ere ez ditu egiten garai\* hartako gorabeherak. Erabaki\* horiek ASPALDIKO KONTUAK zaizkio gaurko Euskal Herriari. Abertzetasun haren garra atxiki nahi dute gudari berrieik (Burgos-en ageri denez) ; baina ez orduko tratu xaharrak. Ez bait dira 35 urte alperrik joan !

Beste alde batetik, « legetasun » famatu hori ez daurre gorria. España-ko Errepublikak bere agintaldi\* GUZIA utzi zuen igarotzen\* autonomia eman gabe, Franco-k egin lukean bezalaxe : administraziozko oztopoak asmatuz. Eta, eman zuenean, gerra hasia zen, eta Bizkaia besterik ez zegoen « Jaurlaritza »-ren agindupean.

On izango da, bestalde, 1936-ko urriaren 7-ko Legea gogoraztea. Estatutoak 14 artikulu zituen ; eta hauetako bakoitzean hau irakur daiteke :

Art. 1 — « CON ARREGLO A LA CONSTITUCION DE LA REPUBLICA y al presente Estatuto, ALAVA, GUIPUZCOA y VIZCAYA se constituyen en region autónoma dentro del Estado Español, adoptando la denominación de " Pais Vasco " »...

Art. 2 — « Corresponde a la competencia del Pais Vasco, DE ACUERDO CON LOS ARTICULOS 16 Y 17 DE LA CONSTITUCION DE LA REPUBLICA »...

Art. 3 — « ...CONFORME A LOS PRECEPTOS DE LA CONSTITUCION Y A LAS LEYES PROCESALES Y ORGANICAS DEL ESTADO... »

Art. 4 — « CONFORME A LO PRECEPTUADO EN EL ARTICULO 50 DE LA CONSTITUCION se reconoce »...

Art. 5 — « Correspondera... SIN PERJUICIO DE LO DISPUESTO EN LOS PARTADOS 4, 10, 16 y 18 DEL ARTICULO 14 DE LA CONSTITUCION Y EN LA LEY GENERAL DE ORDEN PUBLICO »...

Art. 6 — « El Pais Vasco EJECUTARA LA LEGISLACION SOCIAL DEL ESTADO »...

Art. 7 — « ...regulara el uso de las lenguas castellana y vasca en la

enseñanza CON ARREGLO A LO DISPUESTO EN EL ARTICULO 50 DE LA CONSTITUCION »...

Art. 8 — « CONFORME AL ARTICULO 15 DE LA CONSTITUCION DE LA REPUBLICA, incombe al Pais Vasco »...

Art. 9 — « Por tener a su cargo (a cargo del GOBIERNO DE LA REPUBLICA) la totalidad de las relaciones exteriores, EJERCERA SIEMPRE LA ALTA INSPECCION... SERAN DE LA EXCLUSIVA COMPETENCIA DEL ESTADO ».

Art. 10 — « Los poderes del Pais Vasco emanan del pueblo Y SE EJERCITARAN DE ACUERDO CON LA CONSTITUCION DE LA REPUBLICA Y EL PRESENTE ESTATUTO »...

Art. 11 — « Las cuestiones de competencia... SERAN RESUELtos POR EL TRIBUNAL SUPERIOR DE LA REPUBLICA »...

Art. 12 — « El costo... EN ACUERDO DEL GOBIERNO DE LA REPUBLICA con el poder ejecutivo del Pais Vasco »...

Art. 13 — « Alava, Guipuzcoa y Vizcaya continuarán haciendo efectiva su contribución... EN LA FORMA Y CONDICIONES SANCIONADAS CON FUERZA DE LEY POR LAS CORTES CONSTITUYENTES EN 9 DE SEPTIEMBRE DE 1931 ».

Art. 14 — (Lo copiamos integro por su especial interés) : Este Estatuto podrá ser reformado :

- a) Por iniciativa del País Vasco, mediante referendum de los Ayuntamientos y aprobación del órgano legislativo del País.
- b) Por iniciativa del Gobierno de la República y A PROPUESTA DE LA CUARTA PARTE DE LOS VOTOS DE LAS CORTES.

En uno y otro caso será preciso para la aprobación de la ley de reforma del Estatuto las dos terceras partes del voto de las Cortes. Si el acuerdo de las Cortes de la República fuera rechazado por el referéndum del País Vasco, será menester, para que prospere la reforma, la RATIFICACION de las Cortes ordinarias subsiguientes a las que lo hayan acordado ».

Hitz batez : 1936-ko « euskal legetasuna » ESPANA-ko ERREPUBLIKAREN LEGETASUNA BESTERIK EZ DA. 1936-ko Errepublika berbera Madrillera ez badator, edo orduko Konstituzioa ezertan aldatu behar baldin bada, gure « legetasuna » akaboda : ez da deus.

Nafarroa, bestalde, « País Vasco » eta « legetasun » horietatik kanpo dago.

1936-ko « legetasuna », beraz, ez da ezer zoragarri. Euskal Herriaren etorkizuna « legetasun » ezin-ahulago horren menpean eutsi nahi duen politika, menturakeria eta abenturismo hutsa iruditzen zaigu. Gero eta nabarmenjago.

Nork uste du gaur munduan, nork Espana, nork Euskal Herrian

bertan, ez aurten eta ez hemendik bost edo hamar urtetara, Konstituzio eta ESPANAtar LEGETASUN HURAXE berriz nagusituko denik ?

### Baionako Ituna (1945/III/17)

Munduko gudua bukatzerakoan, Mussolini eta Hitler-ekin batera Franco ere eroriko zela sinistea, bidezkoa zen 1945-an ; España-ko gerraz gerotik, ezta 6 urte osorik pasata ez zeudelarik.

Hau dela-ta, ondoko Antolaketa edo Itun hau izenpetu zuten garai hartako euskaldun Alderdiek :

« Las organizaciones políticas y sindicales de Euzkadi en Francia, que han luchado unidas heroicamente en torno al Gobierno de Euzkadi contra el movimiento insurreccional dirigido por Franco, sin renunciar ni hipotecar para el futuro sus ideologías específicas, declaran :

1. — Ratificar la unión de sus fuerzas respectivas a la obra conjunta iniciada el 18 de Julio de 1936, con ocasión de la sublevación militar, unión que ha tomado una forma orgánica el 7 de Octubre de 1936 al constituirse el Gobierno de Euzkadi (EN APLICACION DEL ESTATUTO APROBADO POR LAS CORTES REPUBLICANAS) presidido por S. E. José-Antonio de Aguirre.

2. — Afirmar su confianza a dicho gobierno y prestarle la colaboración necesaria en tanto que representación legítima del Pueblo Vasco, bajo la reserva de que respete sus aspiraciones políticas y sociales.

3. — Respetar y defender, una vez restablecida la normalidad democrática, los deseos del Pueblo Vasco libremente expresados.

4. — Constituirse en CONSEJO CONSULTIVO que asista, proponga y secunde la tarea a acometerse por el Gobierno de Euzkadi, una vez consumada la caída del régimen anti-democrático que las ha expulsado temporalmente del TERRITORIO VASCO como consecuencia de la guerra. El funcionamiento de este Organismo será regularizado por una reglamentación adecuada.

5. — Continuar la lucha, en todas sus formas, al lado de los pueblos, de los partidos políticos y de las organizaciones sindicales de la Península, contra el Gobierno de Franco, la Falange y todo régimen dictatorial, así como contra toda tentativa anti-democrática o de restauración monárquica que pueda surgir. »

Bainoa, 1945-ko martxoaren 17-an.

Izenpetzaileak hauek izan ziren : Euzko Alderdi Jeltzalea, Partido Socialista Obrero Español, Partido Comunista Español, Euzko Ekin-tza, Partido Republicano Federal, Unión General de Trabajadores, Confederación Nacional de Trabajo, Euzko Mendigoizale Batza, Euzko Langile Alkartasuna, eta Izquierda Republicana Española.

Baiona-ko Itun hau izenpetu, eta P.S.O.E. delakoak (Part. Soc. Obr.

Esp.) argitzapen bat eman zuen, « Jaurlaritza »-n sartzeari buruz. Ohar hau Paulino Gómez Beltrán-ek berak siñatu zuen 1945-ko Hazaroaren 20-an; eta lau puntu zituen. Osorik kopiatzeko luzeegi delakoan, puntu nagusiak besterik ez ditugu aipatuko :

... « Primero — SOMOS PARTE INTEGRANTE DEL PARTIDO SOCIALISTA OBRERO ESPANOL, AL QUE RENOVAMOS NUESTRA FERVOROSA Y SINCERA ADHESION, Y DEL CUAL GUSTOSA Y LIBREMENTE ACATAMOS Y SEGUIREMOS ACATANDO SU DISCIPLINA ORGANICA ».

Segundo — « NO ADMITIMOS QUE NADIE AJENO A NUESTRO MOVIMIENTO SOCIALISTA PRETENDA ESTABLECER NORMAS Y PROCEDIMIENTOS PARA NUESTRO DESENVOLVIMIENTO »...

Tercero — « Nuestra adhesión al Gobierno Vasco, y la cooperación que prestamos a su obra, con miras principalmente a lo que luego deba realizarse en nuestro País, CUENTAN EN TANTO DICHO GOBIERNO SE MUEVA EN LA ORBITA DE LA CONSTITUCION REPUBLICANA DE 1931 Y DEL ESTATUTO AUTONOMICO VOTADO POR LAS CORTES...

... « Cuanto se manifiesta en los tres puntos primeros, QUE SON LOS QUE FUNDAMENTALMENTE MARCAN NUESTRA POSICION AL GOBIERNO VASCO, fué exuesto en forma que no ofreciera dudas al Presidente del mismo, señor Aguirre, por representantes calificados de nuestra organización, en la entrevista que con él celebramos en Bayona el 2 de Mayo último »...

#### **« Jaurlaritza »-n daudenez eta ez daudenez bi hitz**

1945-ez geroztik, « Jaurlaritza »-k ba du, lagunzaile gisa, « Consejo Consultivo » delakoa.

Jakina denez, 1960-an J.A. Agirre hiltzean, « Consejo Consultivo » delakoak berriz siñatu zuen Baiona-ko Ituna (1960/III/29) ; baina izenpe-tzaileen zerrendan 1945-ko HIRU erakunde falta dira : Partido Comunista Español, Partido Republicano Federal, eta Euzko Mendigoizale Batza.

Beste batzuk, bestalde, ez dira gaur deus, 1936-ko oroitzapen bat baizik : Euzko Ekintza eta Izquierda Republicana Española.

Zer dago beraz « Cons. Consultivo » delakoaren barruan ? Alderdia eta ELA batetik ; PSOE, UGT eta CNT bestetik. Españolak nagusi beraz.

Gauza bertsua « Jaurlaritza » -n : Alderdia batetik eta PSOE bestetik (Euzko Ekintzaren postua teorikoa bait da arras).

Ikus dezagun orain nor falta den « Jaurlaritza »-n, nahiz ekintza ezagu-neko erakunde izan :

**1. — Euzkadi Ta Askatasuna (ETA)** — Halaz ere, orain dela urte batzuk, eta azkeneko Abenduan bereziki, ETA agertu da Euskal Herriaren ikur\* gisa. ETA-ri buruz betidanik Alderdi-ko aparatoak (ez militante soilek) hartu duen politika-bideak nahi-ta-nahi ez darama gure herrian ez ETA eta ALDERDIA elkartzera edo hurbiltzera, ETA ALA ALDERDIA HAUTATU-BEHARRERA BAIZIK. Alderdia, horretara, gazteriatik urrunzen ari da ; eta gazteria Gudarien ekintzatik eta 1936-aurreko ahalegin guzietatik. Etendura

sakonago egiten ari da. Eta imperialistak (« txuriak » eta « gorriak » imperialista aurrenik) hau ikusi dute ; eta beren jokoa berehala ulertu dute : ETA eta ALEDERDIA ahalik eta gehienik urrundu. Euskal politikan ETA-ri atek hetsiz, españatar politikara bultzatua izan da ETA betidanik (batzutan amua irentsia izan arte).

2. — **ELA-Berri** (Izen honetaz ezagutzen den ELA-talde autonoma) — Erakunde hau ere ezkertarra da. « Jaurlaritza »-k ETA-ri eta ELA-Berriari euskal politikan lekurik ez utziaz (baina bai P.S.O.E.-ari), ba dirudi (eta auxe sinisten dute batzuek) Alderdia-k nahiago dituela españatar sozialistak, euskaldun sozialistak baino. Gure etsaiek ez zuten besterik behar hau salatzeko ; eta hau diote : « La burguesía vasca tiene miedo al socialismo vasco, y quiere cerrarle el paso. La burguesía vasca ni quiere nada con el proletariado vasco. El Frente Vasco es imposible : el PNV no la quiere por nada del mundo. Hay que ser realista, y crear un Frente de Clase dentro del Estado español ».

3. — **EGI-Batasuna** (edo EGI soilik, batzuen ustez, bestea ez dagoe-lakoan). Ez dago « Jaurlaritza »-n, eta aspaldidanik harremanik ez du Alderdia-rekin. Erakunde hau ere, beraz, bere gisara ari da, euskal politika « ofizial »-etik kanpo. Halere ba ditu bere martiriak.

#### 4. — **Enbata** — Ez dago barnean, jakina denez.

« Jaurlaritza »-ren atek zabaldu egin direla erantzongo zaigu, bai. Baino « Jaurlaritza »-k daki nekez eseriko direla mahain berean españatar sozialistak eta euskaldun sozialistak (helburu nagusiekiko, jakina). ETA-k, ELA-Berri-k, EGI-k eta Enbata-k ez dute 1936-ko « legetasun » horretan batere sinisten ; eta horregatik, guk dakigularik bederen, ez-entzuna egin diote zabaltzeari.

Ez da ongi konprenitzten, bestalde, zertan diren abertzaleago PSOE-koak « felipe »-ak baino. Eta hain zuzen hauetxek dute dinamika eta eragina\* ; ez harek.

« Felipe »-ak españolistatzat salatzen ditugun bezala, salatzen dugu ere PSOE delakoa. Ez dugu ulertzen zergatik ukatu behar zaien dena « felipe »-ei eta P.C. koei, eta PSOE-koak gure etxearen eta erakunde nagusietan irribarrez errezebitu. Marxismoaren proportzioa baldin bada kakoa, ez gara abertzaleak, faxistak baizik.

Guk, aldiz, arrazoin BERBERAREN GATIK arbuiatzen dituqu « felipe »-ak PCE-koak eta PSOE-koak : euskaldun arazoa ESPANA-ko PROBLEMETATIK BAT DELA ESATEN DUTELAKO. Alegia : gure nazio-arazoa, errejionalismo-arazo bihurtu nahi dutelako. « Jaurlaritza » horretara INPERIALISMOAREN BABESPE bihurtu da haseratik.

#### Nafarroaren arazoa

Nafarroa « Jaurlaritza »-ren aginte-barrutitik kanpora dagoenez gero, hutsune hori betetzeko, eta PSOE-koen « Argitzapenak » dudarik uzten ez zuela ikusirik (alegia : Euzkadi = Araba + Gipuzkoa + Bizkaia), « Unión Navarra » zeritzan erakundea sortu zuten Lapurdin 1946-an napar batzuek. Eta gerora, Gartzia Larratxe izan zen « Consejo de Navarra »-ren burua.

Hamabi puntutako « Araudi\* » bat onhartu zen Baionan (1946/II/2) eta boskarrenean hau irakur zitekean : « 5/ Nuestra finalidad fundamental es la liberación de Navarra y SU IMMEDIATA INCORPORACION AL GOBIERNO VASCO ».

Honek adierazten duenez, « Jaurlaritza »-ren hutsunea aspaldidanik agiri zitzaien nafar abertzaleei.

Zertan da gaur, ordea, « Consejo de Navarra »-ren arazo hau ?

### Iparraldeko Euskal Herria

Hutsune hau askotan aipatu izan dugu BRANKA-n, eta berriz ekitea alperrik litzake. Baita pertsona gisa ere, 1936-ko gizonik gehienek atzerritar modura jokatu dute Iparraldean, Toulouse-n edo Poitiers-en bezalaxe. Eta Iparraldeko anaiek ez dute hau ulertu. Muga sendotu egin da 35 urte hauetan.

Euskeraren bazterketa lagun euskeraz hitzegitea « extremismo » iruditzen bait zaie oraindik « separatista norteño »-ei) ipartarrek « españolak » ikusi dituzte askotan 36-ko gizonengan.

Honek guziak garbiki erakusten du « Jaurlaritza », bere horretan, eta 1936-ko legetasunaren arrasto huts den aldetik, ez dela gaur ez gai ez egokia Euskal Herria-ren liberazioa aurrera eramateko.

Abertzaleen arteko Elkartea bat behar da.

Pausuka joan beharko dugu, bai ; ez da dudarik. Baino « taktiko »-ko tratuak ezin daitezke bihur (« Jaurlaritza »-rekin gertatu den bezala) ESTRATEGIAKO HELBURU. Ez dugu « Jaurlaritza » 1936-rako edo 1945-rako kondenatzen. Baino DENEN OINHARRI BIHURTURIK, BAI.

Gaur ABERTZALE-ELKARTEA behar dugu.

Zein pausu emango gero ? Ez dakigu. Etsaiak markatuko digu hori. Lehendabizi GEUK\* ELKARTU.

Eta gero, gerokoak.

**U.**

- \* errainu : seinale
- \* berriro : berriz ere
- \* Gainiatian : gaineratekoan
- \* testu : izkirio, idazki
- \* Inungoren : nihungoren
- \* empresan : obran (entreprise)
- \* Langiledia : langileria
- \* Girotzea : arotzea
- \* Euzkadirekiko : Euzkadirendako
- \* Nortzuk : nor
- \* barren : barrenean - barnean
- \* erregimena : gobernu-mota
- \* arazo : afera - gauza
- \* jasotzen : altzatzera
- \* epaitzen : jujatzen
- \* Irixteko : heltzeko
- \* baldintzak : kondizioak

- \* eksistentzia : izana
- \* Estruktura : eraikidura
- \* Igarririk :
- \* aintzat hartu : ontzat hartu.
- 
- \* belaun : jenerazione
- \* Jaurlaritza : gobernua
- \* Garai : denbora
- \* erabaki : delibero
- \* agintaldi : gobernu denbora
- \* igarotzen : iragaiten, pasatzen
- \* ikur : seinale
- \* eragina : egintza, action
- \* errejonalismo : eskualdekatze
- \* araudi : lege-sail
- \* geuk : guhaurek